

Irati Jauregi Unanue

A maila • 1 saria

Kaixo! Irati Jauregi naiz, 17 urteko Ordiziarra. Aurtengoa dut azken urtea Jakintza Ikastolan.

Nire zaletasunen artean irakurtzea, musika eta kirola egitea daude. Horrez gain, bertso munduak ere asko erakartzen nau eta horregatik sari hau jasotzeak asko poztu nau. Ea gustatzen zaizuen egindako sorta txiki hau!



BATXILERGOA

1. Batxilergoan emaitzarekin,
Ai ama! Ze angustia
Curriculumak noski behar du
matrikulekin bustia
eta edozer egiteko gai
gara lortzeko guztia.
Norgehiagoka nazkagarriak
estaltzen du eguzkia.

2. Jarrera honek arrazoi bat du,
posible da azaltzea:
idea antzu pila batekin
bete digute heltzea.
Ikasi dugu ez dela txarra
errespetua galtzea,
norberak bere nahiak lortzeko
albokoa zapaltzea.

3. Modu honetan gainditzen dugu
ezartzen diguten marra.
Gizartearen nahia bihurtzen
dugu finean beharra
ezkutatuta gelditu ohi da
barnean dugun indarra
nota ziztrin bat bihurtzen baita
gure helmuga bakarra

4. Txikitatikan esan digute:
-Lortu daiteke guzia.
Baina heltzen da gure ahalmena
epaitzen duen auzia.
Ezin da ulertu egun txar batek
baldintzatzea bizia,
sustraietatik ebakitzea
gure ametsen hazia.

5. Aurten gainera errebalidak
ekarri du gora behera.
Ekaitz indartsu honen aurrean
ditugu hainbat galdera
Zer izango da? Nola izango da?
Edo egingo ote da?
Ziur bakarra, hau izan dela
pauso haundi bat atzera.

6. Baina bai bata eta bestea
guztiak dira problema.
Kendu beharra zaie ematen
diegun garrantzi dena.
Nahikoa kezka baditugu ta
guk gaztaroan barrena,
test batek ez du erabakiko
bizi honetan garena.